

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak eta ardo-sektoreak ardogintzaren eta enologiaren jarduerak berrantolatzea erabaki dute

Nafarroako Sare Teknologikoaren eredu berriaren esparruan, inplikaturako eragileen eta sektoreko erakundeen arteko elkarlanerako akordioak finkatuko dira

Jueves, 14 de febrero de 2013

Nafarroako Gobernuak mahastizaintza eta ardogintzako sektorearekin akordio batera iritsi da Foru Komunitateko ardogintzaren eta enologiaren jarduerak berrantolatzeko.

Akordio hori Nafarroako Zentroen Sare Teknologikoaren berrantolaketa-esparruan erdietsi da, eta haren helburua lehendik badiren zentro teknologikoak lehiakorrago bihurtzea da eta haien lana ordenatu eta koordinatzea. Xede horretarako, Nafarroan dauden hamalau zentro teknologikoetatik hamahiru sektoreko lau arlo handitan bildu dira, haietako bat, nekazaritzako elikagaiei buruzkoa.

Ardoaren eta enologiaren jarduerak berrantolatuz Nafarroako mahastizaintza eta upeltegiei egun eskaintzen zaien zerbitzua hobetzea bilatu nahi izan da. Horretarako, egokitzen jo da sektoreari laguntzeko neurriak politika orokorragoen esparruan sartzeari eta unitateetan azpiegitura, ezagutza nahiz baliabide zabalagoak izateko aukerarekin. Nafarroako Mahastizaintza eta Enologia Estazioak (EVENA) zituenak baino zabalagoak.

Nafarroako Gobernuaren aldetik, lan-taldearen buru Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioaren kontseilari José Javier Esparza izan da, eta lan-talde hori honako hauek osatu dute: Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendari nagusi Ignacio Gumbre-k; Landa Garapeneko zuzendari nagusi Juan Pablo Rebolé-k, eta Energia eta Berrikuntzako zuzendari nagusi Iñaki Morcillo-k. Aldiz, ardo-sektorea Nafarroako Upeltegien Elkarteak eta Nafarroako Nekazaritzako Kooperatiben Batasunak (UCAN) ordezkatu dute.

Esperimentazioa, aholkularitza eta ikerketa

Nafarroako ardogintzaren eta enologiaren jarduerak antolatzeko



Esparza kontseilari ardo-sektoreko ordezkariarekin bildu da.

sistema berria ondorengo funtsezko premisan oinarritzen da: mahastizaintza eta ardogintzako esperientziak, aholkularitza eta ikerketako jarduerak guzti baten moduan mantentzea, era horretan sektoreko eskari nagusiari erantzunez. Halaber, EVENA marka erabiltzen jarraitzea barnean hartzen du urte hauetan guztietan lortutako ospe eta entzutea ez galtzeko helburuarekin.

Erdietsitako akordioaren barnean laborategi enologikoa Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentuko laborategien unitate zentralizatuan sartuko da. Gainera, mahastizaintza eta ardogintzako produktuen nahiz edari bizien azterketen tasak eguneratuko dira, merkatuko prezioa adieraz dezaten.

Nafarroako Gobernuaren upeltegi instituzionalaren jarduerari dagokionez, oinarrian izaera esperimental duena, Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentuari zuzenean lotuta jarraituko du.

Mahastizaintza eta enologiako aholkularitza eta esperientziako jarduerari dagokienez, INTIA enpresa publikoak garatuko ditu Departamentuaren laguntzarekin; horretarako, lankidetzarako hitzarmen-marko bat finkatuko da. Zerbitzuen kostuak Nafarroako Gobernuak eta sektoreak bere gain hartuko dituzte, era proportzionalan.

Aldiz, egin behar diren enologia-ikerketako jarduerak Nafarroako Upeltegien Elkartearekin eta UCANekin batera adostuko dira, sektoreko solaskide gisa. Haien garatzeko lankidetzarako akordio-marko bat finkatuko da, Nafarroako zentro teknologikoen berrantolaketa-prozesuaren ondorioz sortutako INTIA eta nekazaritzako elikagaien zentro teknologikoen artean; hala, nekazaritzako elikagaien zentro teknologikoa ikerketa teknologiaz arduratuko da enologia-arloan. Horretarako, Gobernuak bere esku utziko ditu upeltegi instituzionalaren instalazioak eta laborategi enologikoen zerbitzuak. Jarduera horiek egiteko beharrezkoak diren mantentze-lanen eta erabileraren kostua azterketa zehatz baten xede izango da kasu bakoitzean.

Azkenik, akordioaren barnean sartzen da, garatzen diren ardogintza eta enologiako hainbat jardueraren jarraipena egiteko formula bat finkatzea, inplikaturako eragile guztiek bertan parte-hartzea izango dutenak, eta izaera loteslea izango du.